

Inma Errea

Beste modu batean

F

ilm batzuek arrastoa uzten dute. Gogoan dut *The Picture of Dorian Gray*, Oscar Wilde-ren nobelan oinarrituta 1945ean egindako filma (bertsio berriagoak izanda ere, nire oroimenak bertorio zahar horri eusten dio). Azaroaren 7an, Anjel Lertxundik hartu zuen hizpide, *Hitz besten*, Berlusconi ari zelarik. Agian horregatik etorri zait gogora orain.

Filmean, Dorian Grayk irudi perfektua gordetzen du, inongo estetika-etxetara jo beharrik gabe: haren ordez, bere etxeko gela ilun batean ongi gordetik duen erretratu zahartzen da. Erretratuarena, ordea, ez da zahartze arrunta, adinaren zantzuez gain, Grayk egiten dituen ankerkeria guztienak ere bereganatzen baititu. Hiltzen denean, haren eta erretratuaren irudiak alderantziz ikusten ditugu. Grayren hilotzak denborak eta jabearen txarkeriak utzitako markak bereganatzen ditu, eta erretratu, berriz, Gray gazte eta eder baten isla da berrito.

Lertxundik Berlusconi aipatzen zuen, baina nago Gray asko daudela gure munduan, batez ere, boterearen agertokietan. Egunero-egunero hedabideetan ikusten ditugu, dotore jantzita, diskurtso biribilak egiten, eta guri, herritar arruntoi lezioak ematen. Haien sosak eta gureak ausarki gobernatzen dituztenek guri esaten digute kontuz ibiltzeko gastatzen dugunarekin, bestela *paga* jaitsi edo kendu beharko digutelako. Gu ume gaizki heziak gara haien zantzuz, eta munduan gertatzen diren gabezia eta zorigaitz guztien errudun egin nahi gaituzte. Eta iradokitzen digute haiek meritu handiagoak egin dituztelako *iritsi* direla hor egotera, gure gainetik. Hori horrela, haiek bezala *saia-tzea* edo konformatzea beste biderik ez dugula sinestarazi nahi digute.

Telebistan edo egunkarietan halakoak ikusi eta haien diskurtso zuriak entzuten



ditudanean, sutan sentitzen dut odola, eta kontsolamendua hartzen dut pentsatuta horiek guztiek, Grayren antzera, erretratuak dituztela, zeinek berea, gela ilun batean ongi gordetik, non, amorrutuz, jende xeheari egindako aldrebeskeria guztien lekukotasun zehatza jasota ikusi beharko dute, noizean behin.

Kontsolamendu tentela da, hainbeste bidegabekeriaren aurrean ezin ezer egitearen suzudaneo hitsa. Zaila da, ordea, lotsagabekeriei aurre egiteko modu on bat asmatzea.

Zaila bezain beharrezkoa da, ordea, modu berriei ekitea. Egun baliatzen ditugun eta baliatzen gaituzten pentsamoldeei ihes egin eta beste

modu batean pentsatzen eta egiten hastea. Badira adibideak historian, baina ez zaie muntarik ematen. Gandhi, adibidez, bakezale handia izan zen, baina bere manera sotilekin inperio oso bat urduritu zuen. Hori gutxitan azpimarratzen da. Noiz edo noiz, baten batek nagusikeriei aurre egiteko metodo leun bat asmatzen du, hankaz gora jarriz guztiek finko eta tinko jotzen zutena. Ohitu gara pentsatzen gauzek beti berdin

segitu behar dutela. Hala izango da agian, baina hasi beharko genuke zirrikituren bat irekitzen beste aukera batzuei, gure pentsuek beti hartzen baitiete aurre gure ekintzei.

Hasteko, helarazten dizkiguten mezuak kolokan jar ditzakegu. Galdetu, adibidez, zer on dakarten auto handi distiratsuek, diseinuzko etxe dotoreek edota luxuzko jantzi eta osagarriek.

La guerre du feu filmean bezala suaren antzeko ondasun funtsezko batengatik gorriak ikusi edota besteei bereak eta bi emateak zentzuren bat izan dezake, baina, zer zentzu dauka besteak zapaltzen ibiltzeak, gero, Madoffen antzera, etxeko zapatilak urtean brodatu izateko? ■

Lertxundik Berlusconi aipatzen zuen, baina nago Gray asko daudela gure munduan, batez ere, boterearen agertokietan. Egunero-egunero hedabideetan ikusten ditugu, dotore jantzita, diskurtso biribilak egiten, eta guri, herritar arruntoi lezioak ematen